

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

ETXETIK PLAZARA

HARRIZKO LEKUKOAK

SARIA:
Elgorriagako
bainuetxean
bi lagunentzako
zirkuitua +
otordua

2017ko EKAINA

153. ALEA

JAUREGI ETA DORRETXEAK

Gure eskualdean badira jauregi eta dorretxe anitz, batzuk hondaturik, bertze batzuk zaharberrituta, bertze zenbait moldaketa eta hobekuntzen zain... baina guztiak Nafarroako historiaren lekuko dira, gure historiaren lekuko. Eraikin handi eta bakarrak dira, historikoki errege, printze, goi-mailako erlijioso eta handikien bizileku izandakoak. Eraikinaz gain, lurrak, gainerako eraikinak eta egoitzak ere jauregiaren barrenean sartzen dira. Gehienak Nafarroako mendialde eta erdialdean eraiki ziren. Erriberan, berriz, gutxiago altxatu ziren.

Bi mota bereiz daitezke: Erdi Aroan defentsarako eraikitzen ziren dorretxe eta jauregiak, eta XVII. eta XVIII. mendeetan altxatu zirenak (politikari, indiano edo aberats berriek eraikitakoak). Nafarroan ere bi mota sailkatzen ahal ditugu: jauregi arruntak eta *“cabo de armeria”* izenekoak.

1637. urtean Nafarroan 197 jauregi zeuden, eta 1799an 285. Jauregi horien eskubideei dagokienez, aipatu behar da armarrria izateko eskubidea ez ezik, elizkizun bereziak eta lurperatzeko leku bereziak ere aitortzen zitzaizkiela. Gainera, Nafarroako legediaren arabera, jauregietan justiziatik ihes eginda-koak onartzen ahal zituzten (lapurrak, iheslariak edo salatariak izan ezik). XVI. eta XVII. mendeetan jabeen artean gatazka eta istilu anitz izan ziren eta epe horretan ere landa eremuko nobleak hirietara joaten hasi ziren; ondorioz, hiri anitzetan estilo ezberdinetako jauregiak eraiki ziren.

Testuinguru horretan *“cabo de armeria”* izendapena duten jauregiek aipamen berezia merezi dute. Horiek goi mailako handikien egoitzak dira eta Nafarroan bakarrik aitortzen zaie izendapen berezi hori. 1500. urtean 119 ziren eta 1750. urtean 192. Jauregi horiek duten ezaugarri nagusia emariak, zergak, etab. ordaintzeko beharrik ez zutela da. Era berean, anitzek Iruñeko gorteetara joateko eskubidea zuten militarren edo nobleziaren tokia edo eserlekua hartzera.

Ale honetan gure eskualdean zenbat jauregi eta dorretxe ditugun ikusiko dugu. Bakoitzak bere historia, bere ezaugarriak, bere bitxikeriak... ditu. Hona hemen gure eskualdeko eraikin batzuen aipamen sorta bat:

- **Arraiozko Jauregizaharra** hagitz berezia da, lau uretako teilatua duelako eta goiko aldean egurrezko usategi antzeko bat duelako. Goiko aldean dagoen kadalsoa ere egurrezkoa da, 1989an zaharberritu zuten.


- **Etxalarko Gazteluko dorretxeak** *“cabo de armeria”* izendapena du. Historikoki moldaketak egin zaizkio eta 1998an zaharberritu zuten. Dorretxe horrek, lurperatzeko eskubideak zirela eta, izugarrizko istiluak izan zituen.

- **Elbeten Askoa** (*“cabo de armeria”*) eta **Jarola** izeneko jauregiak aurkitzen ahal ditugu. Bitxikeria gisa, aipatzen ahal da azkeneko honetan Ramon del Valle Inclanek egonaldiak egin zituela.

- **Iturengo jauregiak** ere *“cabo de armeria”* izendapena zuen.

- **Lesakan** ere bi perla aurkitzen ahal dira: **Minddurenea** eta **Zabaleta dorretxeak**.

LAN ETA LAN



Testuan, gure inguruetan jauregi eta dorretxe anitz daudela aipatu dugu. Eta **NOLA DAUDE?** Batzuk **hondaturik**, bertze batzuk **zaharberrituta**. Bi adibide hauek adberbioak dira, aditz partizipiotik adberbioak sortuta. Bi adibide hauek abiapuntu dira adberbioak zer diren hobeto aztertzeko.

Adberbioak aditza **OSATZEKO eta LAGUNTZEKO** erabiltzen ditugu. Aditzak adierazten duen ekintza **NOLA, NOIZ** edo **NON** gertatzen den zehazten dute.

Baina adberbioak, adjetiboak ez bezala, **aldagaitzak** dira, hau da, ezin dute **A/AK** marka mugatzaile-rik, ez bestelako determinatzaile-rik hartu.

Hori dela eta, ezin dugu horrelakorik erabili:

* Lodia nago, trista bizi naiz, trista **ak** daude, gaur **a**, ederto **hau** ...

Bestalde, aditz-partizipioa ere maiz erabiltzen da adberbio gisa.

Horrelakoetan normalean **—TA/—DA, —(R)IK** eta **A/AK** atzizkiak eransten zaizkio:

nekatuta, hautsita, etzanda, edanda, asperturik, ikusirik, izanik, harritua, harrotuak...

Kasu aditza pluralean dagoenean!

- Nekatuta/rik/a nago-hago-zaude-dago (singularra)
- Nekatuta/rik/ak gaude-zaudete-daude (plurala)

Gaizki: * Nekatutak gaude-zaudete-daude.

Azalpen hauek kontuan hartuta, ondorengo esaldiak ongi edo gaizki dauden erran beharko duzu.

- 1.- Nafarroako dorretxe anitz zaharberritutak daude.
- 2.- Nire herriko jauregia nahiko hondaturik dago.
- 3.- Miren gripeak jota dago eta bere gurasoak, berriz, neumoniak jotak daude.
- 4.- Nire etxeko ateak morez margotuak daude.
- 5.- Barkatu, baina jarleku hau librea al dago?
- 6.- Erosi dudak kotxe berria hagitz arina dabil.
- 7.- Okerra ez banago, Kepa ez dago.
- 8.- Arantzako II. Mendi Lasterketa burutu genuen eta helmugara lur jotak ailegatu ginen.
- 9.- Mozkorra dago eta arrunt ergela dabil.



BITXILOREAK

TAULEN ETXEA

Gure eskualdeko dorretxeen artean, badira bereziki famatuagoak direnak, errate baterako, Donamariako Jauregia. Hori dela eta, hurrengo testutxoan eraikin horri buruzko informazioa harrapatuko duzu, non bere historia eta bertze hainbat bitxikeria ezagutzeko aukera izanen duzun. Ikusiko duzunez, testuari hitz batzuk kendu dizkiogu eta hemen behegian paratu ditugu naha-sita. Badakizu zein izanen den zure betebeharra, ezta? Hitz horiek dagozkien lekuan kokatzea. Animo bada!

- | | | |
|-----------|------------|---------|
| a) arteko | e) jada | i) gaur |
| b) arren | f) jabetza | j) oro |
| c) esker | g) lan | k) bide |
| d) zur | h) honela | l) omen |



Malerrekako herri ttikietan barna Donamariatik pasatuz gero, herri sarreran dagoen eta modu nabarian atentzioa ematen duen *Tauleen Etxearekin* topo egingen dugu bete-betean. Erdi harri, erdi zur.(1)..... eta lur gelditu ohi da dorretxea bisitatzeraz hurbiltzen den nornahi.

Jauregia izeneko eraikin honi defentsarako pentsatua izan zela antzematen zaio. Izan ere, kokaleku estrategikoan dago,(2)..... eta errearen ondoan, herritik bereizita, eta zalantza izaro batek aipatzen duenez, Donamariako elizarekin konektaturik(3)..... zegoen pasabide ezkutu batzuen bidez.

Herrian sartu edo atera nahi duen(4)..... zelatatzen du bere gezi-leihoetatik, baina defentsarako izaera izanagatik, batez ere baserri lanetarako ibilia izan da.

Dorretxearen(5)..... hainbat eskutatik igaro da; badakigu 1488. urtean(6)..... existitzen zela eta gauza ziurra ez bada ere, bere eraikuntza Ochoa de Donamaria izeneko ezkutariari lotua omen dago. Leinu horretako senideen(7)..... ika-mika baten ondorioz, 1542an Tristán de Donamaria eta Isabel Cruzat jauntxoan jabetza izatera pasa zen. Halere, jabe berriek nahiago izan zuten han bertan bizi beharrean, dorretxea alokatu, eta(8)....., baserriko lanetarako erabili izan da joan den mendeko 80. hamarkada arte.

1750. urtean Joaquin Francisco de Ursuak eskuratu zuen *Tauleen Etxea*. Gerora, Gongora markesak eta honen senide zen Barrot kondeak eskuratu zuten, hurrenez hurren. Azkenean, Miguel Barberenari saldu zion kondeak,(9)..... egungo jabeen birraitxiri, Carmen eta Angeles Peralta ahizpak. Jauregia jabetza pribatukoa den(10)....., Interes Kulturalako Ondasun izendatu eta 2000. urtean berriro egin zuten Nafarroako Gobernuak Principe de Viana Institutuaren eskutik, ia 700.000€ko aurrekontu batetik abiatuta.

Zaharberritzeko(11)..... horri COAVN saria eman zioten 2003an, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialetako 1. saria, hain zuzen ere. Eta gaur egun, asteburu eta besta egunetan egiten diren bisita gidatuei eta bertzelako kultur jarduerari (antzerkiak, musika emanaldiak, erakusketak, hitzaldiak, etab.)(12)..... historiaren beteriko *Tauleen Etxea*, kultur-etxe gisakoa bihurturik, ezagutzeko aukera izanen dugu.

BOTA BERTSOA

Gaiarekiko inspirazioak jota, oraingo honetan euskaltegikook bertso pare bat egitera animatu gara. Hitz-hutsetan erori gabe, aurre egiteko gai korapilatsua iduritu zaigu, baina halere, hementxe dituzu hausnarketaren fruituak. Hori bai, bertsoak ongi konprenitzeko, lehenbizi, bertsoaren oinak bere lekuan kokatu beharko dituzu:

ERNE, SARIRAKO!

aldaba
inora
gogora

gisara
badaezpada
proba

bertara
ondora
euskara

denbora
enbaxada
ondoriora



Errespetuzko itxura
darie behetik gora,
beldur eta boterea
datozkit niri(1)....
sentimendu gazi-gozoz
iritsi naiz(2)....
guda gordinen islada
zirela inondik-....(3)....,
garai berriak eredu
egin dezakegu(4)....
utzi dezagun atzean
iraganeko(5)....,
hurbil ditzagun dorreak
herri xeh(e)aren(6)....

Dorretxe hauek buruan
hona bertso-matxinada,
hitzok zuzenean doaz
jotzera haien(7)....
eskakizun berezia
eginez nire(8)....,
gure hizkuntza, altxorra
eraman nahi dut(9)....,
gotorlekua behar du
irmoa,(10)....
dorreen sendotasuna
bihur bedi(11)....,
ireki zuen ateak
(e)ta utzi sartzen(12)....



ZEIN DA ZEIN?

DORRETXEAK

Hemen ikusten ahal izanen dituzu Bidasoak bustitzen dituen lurretan dauden dorretxeetarikoz batzuk. Ezagutzen al dituzue? Badakizue non dauden? Horixe bera eskatzen dizugu ariketa honetan. Ongi-ongi begiratu eta zerrendako izen eta kokaleku zuzena eman dorre bakoitzari:

a) Gaztelua (Etxalar)

b) Urtsua jauregia (Arizkun)

c) Aranibar dorretxea (Arantzaz)

d) Jauregizarrea (Arraioz)

e) Bergara dorrea (Arizkun)

f) Subizar jauregia (Sunbilla)

g) Jauregia (Donamaria)

h) Minddurienea (Lesaka)

i) Jauregia (Ituren)




1)



2)



3)



4)



5)



6)



7)



8)



9)

ERANTZUNAK

LAN eta LAN (3. or.):

1- Gaizki; 2- Ongi; 3- Gaizki; 4- Ongi; 5- Gaizki; 6- Gaizki; 7- Gaizki; 8- Gaizki; 9- Gaizki

BITXILOREAK (4. or.):

1- d; 2- k; 3- l; 4- j; 5- f; 6- e; 7- a; 8- h; 9- i; 10- b; 11- g; 12- c

ZEIN DA ZEIN? (6. or.):

1- e; 2- a; 3- g; 4- d; 5- f; 6- i; 7- b; 8- h; 9- c

152. aleko sariketa erantzunak – ILARGIMINEZ (6. or.):

1- i; 2- j; 3- g; 4- c; 5- b; 6- h; 7- a; 8- d; 9- f; 10- e

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **6. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: Elgorriagako
bainuetxean bi lagunentzako
zirkuitua+otordua

152. aleko irabazlea:
Olaia Elizalde Garaikoetxea
Elizondokoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak ekainaren 30a baino lehen bidali itzazu.

SARIRAKO ARIKETA

BOTA BERTSOA! (5. or.):

- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 7 - _____ |
| 2 - _____ | 8 - _____ |
| 3 - _____ | 9 - _____ |
| 4 - _____ | 10 - _____ |
| 5 - _____ | 11 - _____ |
| 6 - _____ | 12 - _____ |



UDAN ere, EUSKARAren KILIKA!



- LESAKAn, 100 orduko UDA IKASTAROAK, Uztailan, abuztuan eta irailean, B1-4. urratsetik EGAr
- DONEZTEBEn, abuztuan, EGA-C1 ikastaroa (abuztuaren 7tik 31ra)

Bortzirietan erroldatua bazaude, matrikula DEBALDE!

Informazioa eta matrikulak:

- Uda ikastaroak, 948 637 796 bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus
- Doneztebeko EGA ikastaroa, 948 451 555 malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

ikaeuskaltegiak.eus

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

